

BALIO PROPOSAMENA

Guk sortutako enpresa ileordeak sortuko ditu. Guk asetzen dugun beharra pertsona burusoilek ile polita eduki ahal izatea da. Arrazoi askorengatik jendea ile gabe geratzen da, adibidez estresa, minbizia, alopezia... Eta askotan jendea akonplejatua sentitzen da. Ileordeekin lortu nahi duguna da jendea **seguru sentitzea** eta bere buruarekin ondo egotea nahi duena eramaten.

Gure enpresa, beste batzuetatik bereizten dituen faktoreak, hurrengoak dira, balioen barruan, balore kuantitatiboak kontuan hartuta, beste enpresa batzuk baino prezio baxuagoak eta kalitate hobeko produktuak ditugulako. Kalitatiboan ordea, diseinu ugari ditugu, besteak beste, ile luzea, laburra, kizkurra...

Beste enpresengatik bereizteko faktore ugari izan ditzakegu kontuan, besteak beste, orain arte ikusi ez den zerbait asmatu dugu, pertsonen ilea egiten duen makina bat.

Pertsonalizazioa, ileorde pertsonalizatuak egin ditzazkegu, hau da, pertsona bakoitzak erabaki dezake zein motatako ile ordea nahi duen, zein tamainatan, koloretan...

Prezioaren aldetik, gureak eskuragarriak izango dira jende guztiak eduki ahal izateko. Nahi duguna da jendeak eduki ahal izatea diruagatik arduratu gabe.

Arriskuen murrizketa kontuan harturik, beste ileorde sintetikoak dituzten arazoak sahiesten ditugu, hau da, kalitate txarrekoan direnez, erraz enredatu egiten dira, eta ondorioz apurtzea ere ez da zaila, gure kasuan kalitate onekoak direnez, oso zaila da apurtzea eta enredatzea.

Eskuragarritasunagatik erraz izango da, herrialde guzietako jendea erosi ahal izango du, denda online izango delako.

Erabilerraztasuna, erabiltzeko erreza da, ile normala bezelakoa delako, eta ez denez hain delikatua, ez du apurtzeko aukera handirik, oso leunki tratatu behar izan gabe.